

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakariaren Ebazpena, zeinaren bidez deialdia onartzen baita Gizartegintza Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81.003) izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko**

Beharrezkoa da betetzea Gizartegintza Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81.003).

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 46.1 artikuluan dakar funtzionarioentzat gordetako lanpostuak, lanpostu zerrendetan jarrita legokeena kontuan izanik, lehiaketez eta izendapen askez baliatuz beteko direla.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren lanpostu zerrendan, zeina Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 63/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu eta 2016ko irailaren 30ean ALHAOn argitaratu baitzen, ezarri da Gizartegintza Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua izendapen aske bidez beteko dutela euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek.

Horregatik, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak 11. Artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Deialdia egitea izendapen askeko sistemaren bidez bete dadin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81.003).

Bigarrena. Onarpena ematea deialdia arautzen duten eta ebazpen honen eranskinean ageri diren oinarriei.

Hirugarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, jurisdikzio hori arautzen duenak (BOE, uztailearen 14koa), 8.1.a) eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera, betiere diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egituraren eta funtzionamenduaren araudia onartzen duenak, 30.3 artikuluan ezarritakoarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz. 2020ko abuztuaren 4a

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio kontseiluko lehendakaria*  
**EMILIO SOLA BALLOJERA**

**ERANSKINA**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdiaren oinarriak

**Lehenengoa. Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da izendapen askeko sistemaren bidez betetzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua.

**Bigarrena. Lanpostuaren deskribapena**

Kodea: 81.003.

Lanpostu mota: B (bakuna).

Dedikazio erregimena: ehuneko 100 (osoa).

Betetzeko modua: I (Izendapen askea).

Administrazioa: EAE (Euskal Autonomia Erkidegoa).

Sailkapen taldea: A.

Eskalak: 1-2 (Administrazio Orokorra edo Berezia).

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Destino-osagarriaren maila: 29.

Berariazko osagarriaren zenbatekoa: 45.176,75 euro.

Lantoki herria: Vitoria-Gasteiz.

Ordu prestasuna: 100 ordu; horietatik 40 ordu ezarritako urteko ordutegitik kanpo egin beharko dira.

**Hirugarrena. Betekizunak**

Euskal Administrazio Publikoetako karrerako funtzionarioa izatea, A sailkapen taldekoa eta Administrazio Orokorreko Eskalakoa edo Administrazio Berezikoa izatea, edo horien baliokidekoak, halaxe xedatzen baitu Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak.

**Laugarrena. Eskaerak**

Hirugarren oinarrian ezarritako betekizunak betetzen dituzten interesdunek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakariari zuzenduko dizkiote beren eskaerak, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistro Orokorrean (San Prudentzio kalea 10, 2, 01005 Gasteiz) edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administraziopublikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan xedatutako eraren batean aurkeztuko dituzte. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera horretan datu pertsonalez gain honako hauek ere jakinarazi behar dituzte interesdunek:

- A) Ikasketa tituluak.
- B) Karrerako funtzionario izendapena, non agertu beharko duten taldeak eta eskalak edo, bestela, zein kidegori dagokion.
- C) Nola herri administrazioan hala enpresa pribatuan izandako lanpostuak.
- D) Egindako ikasketak eta ikastaroak eta dakizkien hizkuntzak.
- E) Izangaiak alegatzea egoki jotzen dituen bestelako merezimenduak.

Eskaerarekin batera, izangaiek eskatutako betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dituzte.

**Bosgarrena. Ebazpena**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari kudeatzaileak, eskatzaileek azaldutako merezimenduak aztertu ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko jarduneko lehendakariari aurkeztuko dio izendapen proposamena.

Eskatzaileen arteko inor lanposturako egoki jotzen ez bada, lanpostua bete gabe utz daiteke.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko jarduneko lehendakariaren ebazpenaren bidez egingo da esleipena.

**Seigarrena. Aurka egitea**

Oinarri hauek, deialdia bera eta horien ondorio diren administrazio egintza guztiak aurkatu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako kasu eta moduetan.